

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

METEOROLOGIA

Etiopiako tximista Karibeko urakan

AFRIKAKO EKIALDEAN gertatzen diren ekaitzek eragin zuzena dute urtero Karibe aldean sortzen diren hurakanetan; zehatzago esan daiteke: Etiopiako goi-lurretako ekaitz eta tximistak dira segitu beharrekoak. Teoria harrigarri hori Tel Aviv-eko (Israel) unibertsitateko Colin Price-k eman du, berak zuzendutako ikerketa lan baten ostean.

Ikerlariak joan den mendetik dakite Cabo Verde sortutako ekaitz tropikalak ozeanoa zeharkatu eta Karibera heltzen direla. Orain ordea ekaitz horien sorrera hobeto ulertzeko bidea egin dute. Orain jabetu dira zientzialariak Saharako hondar-ekaitzak eta Etiopiako ekaitzak eragin zuzena dutela Atlantikoaren beste aldean izaten dituzte ekaitzekin.

Price, eta bere taldeak, Afrikako ekialdean



Wilma urakanaren satellite irudia.

sortutako ekaitzek eragindako uhinak aztertu zituzten. 2005 eta 2006 urteetan egin zuten ikerketa –gogoratu beharra dago 2005ean hogeita zortzi ekaitz tropikal sortu zirela eta 2006an hamar–. Ikerlariak konturatu dira bi urteotako proportzioan gertatu zirela ekaitzak Karibe aldean.

‘Harreman tran-sozeanikoen’ gainean izan dugu hau

baino lehenago albiste harrigarriarik. Berriki argitara eman den ikerketa baten arabera Amazoniako baso tropikalak behar duen ongarrietatik erdia Afrikako basamortuetatik eramaten du haizeak. ■

Osasuna

JABIER AGIRRE

Elebitasunak arreta hobetzen du

ZAILA DA aldi berean hizketan ari diren pertsonaz betetako bulego batean kontzentratzea. Elebidunentzat, hala ere, errazagoa da. Bi hizkuntza hitz egiten dituztenek erraztasun handiagoa dute beren arreta fokalizatu eta ez distraitzeko. Bartzelonako Unibertsitateko Neurozientzietako Ikerketa Taldeak frogatu du hori 100 gazte elebakar eta beste 100 elebidunek parte hartu duten azterketa batekin. Gazteen arreta gaitasuna neurtzeko hainbat frogak egin dituzte.

Premiak eraginda elebidunek etengabe kontrolatu behar dituzte beren bi hizkuntzak, elkarrekin ez nahasteko eta batek besteari interferentziarik ez eragiteko. Horregatik, mintzairaren zentroak erabiltzeaz gain, aldi berean, arreta gaitasunarekin lotuak dauden garuneko zirkuituak ere erabiltzen dituzte. Horrek entrenamendu gehiago esan nahi du, eta elebakarrak baino bizkorrago izatea kontrol gehiago eskatzen duten eginkizunetan.

Gatazken aurrean elebidunak bizkorrago erabakitzen du eta horri esker oker gutxiago egiten du. Gainera adimen gaitasun horrek badu bere saria zahartzaroan ere, elebidunek gehiago tardatzen dute alzheimerra bezalako gaitz neurodegeneratiboak garatzen.

Badira desabantaila txiki batzuk ere. Milisegundoen

kontua baldin bada ere, elebidunak motelxeagoak omen dira hizketan, seguruenik beren garunean bi datu-base batera erabili behar dituztelako. Eta aldian behin trabatuta bezala geratzen dira, batez ere gutxi erabiltzen diren hitzekin edo hizkuntza batetik bestera oso diferenteak direnekin.



INES URRUTIA

INGURUMENA

Etanola ez da oro urre

ARNAS-APARATUKO GAIXOTASUNAK orain baino askoz ere jende gehiagok sufituko lituzke ibilgailu guztiek etanola erreko balute. Hori da behintzat Stanford (AEB) unibertsitateko Mark Z. Jacobson ikerlariak dioena.



Gasolinaren ondoan etanola ingurugiroarentzat askoz hobe delako oso zabaldutako ideia da eta Jacobsonen lanak ezbaian jarri du hori. Oso eredu informatiko konplexua erabili du 2020an AEBetan airearen kalitatea simulatu ahal izateko. Berak dioenez, gizakiarengan erregaiek duten eragina ez da soilik erregaiei osagaien arabera. Inguruko faktoreak ere kontuan hartu behar dira, hala nola: tenperatura, eguzki erradiazioa, lainotasuna, haizea eta euria, besteak beste. Aldagai horiek guztiak kontuan hartuta egin du irakasle horrek Los Angelesen –bertan biltzen da AEBetako biztanleriaren %6– hemendik hamairu urtera izango duten airearen simulazioa.

Emaitzak harrigarriak izan dira; gasolina erreaz isurtzen diren substantzia kantzerigenoen kopuru antzekoa isurtzeaz gain ozono troposferiko (*smog*) askoz gehiago isurtzen du etanolak eta ozonoa arnasteak asma, biriketako minbizia eta sistema immunologikoaren ahultzea ekar ditzake. Ez dugu ahaztu behar urtero munduan smog-a arnasteagatik 800.000 pertsona hiltzen direla. ■

landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

More balepo

MEDITERRANEORAKO bide aldeak gorri eta Bizkaiko itsaso alderakoenak more, bapo lepo, balepo. Kukuak urdin more hau dakar lur hezeetara. Freskurak urdinu gabe moretuak beroak gorritu arte iraungo du. Kukuak ekarria, kukuak kukuka jarduten duen artean izango duguna. Izango dugun horren izena: kuku-belarra (*Aquilegia vulgaris*). Maiz kuku-praka ere deitzen zaio, neure ustez oker, *Digitalis purpurea* izena kenduaz. Anzako-bedar eta arraho-bedar ere deitzen omen zaio; bi izenok ordea, kanpoko bilduma batean topatu ditut eta bertako inongo erreferentziarik ez dudanez ezin ontzat eman. Inork aztarnaren bat eman baleza gustura zabalduko genuke hemendik... Adibidez: arraho-bedar izena hain gurea zen eta den arabierako "arrahar" aditzetik ote dator? eta zer dio?

Aquilegia "aquila" hitzetik, arrantotik dator. Landare honek kukur harrotzen duen lore ikusgarriaren petaloek ezproi dotore bana dute, harrapariaren atzaparraren tankeran. Aurten, aspaldiko urtetako kuku-belar loraldi bikainena dugulakoan nago, udaberria heze dijoala-eta ote? Inoiz ez ditut bide-aldeak hain more balepo ikusi. Ikusi ikusi! beroak di-da izorratuko du-eta ikuskizuna, beste urte mordo baterako...

Lehen sendabelar sonatua zen, eskorbutuari buelta emateko gai zen. Inor hil nahi baduzu kontutan izan, zianuroa sortzen du, bihotza bara lagako lioke... Sotilxeago, ehotako haziak, oliotan jarri eta buruan emanda zorriak uxatzen omen ditu. Ehotu honekin gorputza igurzteko perfume gisa erabili izan da, maitasuna, amodioa erakartzeko... Ausardia eta adorea areagotzeko ere baliatu dute kultura batzuetan "lehoiaren belarra" izen ponpoxoa emanez.



Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erromintak Soluzioak Zerbitzuak

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (A.E.P.)
Industriaidea 1, 20180 Lasaeta (Gip.)
Tel. 943.37.18.48
a.garbi: adurgarbi.com